

MARTIN ALDAYA OLASAGASATI, Garbitania Zero Zabor S.M. sozietateko administrazio kontseiluko idazkariak, honako hau

ZIURTATZEN DU

A) Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak, 2019ko abuztuaren 6an egindako bilkuran ondorengo ERABAKIA hartu zuela:

1.- Garbitania Zero Zabor S.M.k kale garbiketa zerbitzurako beharrezko dituen hondakinen poltsen hornidura kontratatzeke behin behineko esleipena erabakitzea.

Zehazki, besteen artean, honako akordioak erdietsi ziren aho batez:

Lehenengoa.- Kale garbiketa zerbitzurako beharrezko diren poltsen horniduraren kontratua ondorengo enpresei esleitzea adierazten den salneurrian (BEZ kanpo).

Lote zb	Enpresa	Puntuaketa orokorra	Eskainitako lotearen prezioa lau urterako
1	Lidera Higiene S.L.	82.167	21.761.60EUR
2	Lidera Higiene S.L.	89.625	10.785.60EUR

(...)

Hirugarrena.- Garbitania Zero Zabor S.M.ko gerenteari ahalmena ematea, eskatutako dokumentazioa aurkezten denean kontratua gauzatu dezaten.

Horiek horrela, eta administrazio kontseiluak horrela erabakita kontratua esleitutzat ematen zen eta Lidera Higiene S.L. enpresarekin 2019ko irailaren 2an datarekin kontratua sinatu zen.

B) Sinatutako kontratuan atxikitako plegu administratiboetako 4. puntuan honakoa jasotzen dela:

4.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena BI URTEkoa (2) izango da. Prozedura honetan biltzen den hornidura honek hasiera kontratua sinatu eta hurrengo egunean izango du.

Kontratua beste BI URTEZ (2) luzatu ahal izango da, Garbitania Zero Zabor S.M.k horrela eskatuz gero eta gehienez urte beteko bi alditan (aldi bakoitzean Administrazio Kontseiluak horrela onartuz gero), eta esleitu zerbitzua luzatzerako beharrezko legoke, SPKLren 29.2 artikuluan xedatutakoari jarraiki. Kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, gehienez ere LAU (4) urtekoa izango da.

Garbitania Zero Zabor S.M. berak erabakitzen badu, bere ekimenez eta esleipendunak bere obligazioak bete ez dituelako, kontratua suntsiaraztea, esleipendunak zerbitzua ematen jarraitu beharko du, Garbitania Zero Zabor S.M.k horri egoki irizten badio, horretarako deitutako lizitazio berria esleitu arte, edota, gehienez ere, sei hilabetez, kontratua suntsiaraztea erabaki denetik kontaktzen hasita. Epe horretan, kontratuan ezarritako prezioak aplikatzen jarraituko dira.

C) Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak 2021eko apirilaren 28an burutu bilkuran honakoak adostu zituela aho batez:

Lehenengoa.- Beste urte betez kontratuaren luzapena onartzea, iraungitze data berria 2022ko irailaren 2an izango delarik.

Bigarrena.- Dagokionean Lidera Higiene, S.L.ri jakinarazpena igortzea.



Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, jakinarazpen hau egin dut, lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena.

Hernanin, 2021eko apirilaren 28an

O.I

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA